



30 URTE NAFARROAN LAN AUKERAK SORTZEN

- Gureak Navarra 1990ean sortu zen, marketin eta komunikazio jardueraren ordezkari gisa.
- Gaur egun 230 pertsona dituen enpresa da, eta % 93k desgaitasunen bat du.

Iruña, 2020ko uztailaren 12a. GUREAK Navarrak bere 30. urteurrena ospatzen du aurten. Hiru hamarkada igaro dira jada GUREAK, marketin eta komunikazio jardueraren ordezkari batekin, Nafarroara iritsi zenetik hainbat jardura garatzeko, besteak beste, gutunak inprimatu, gutun-azaletan sartu eta frankeatzeko lanak eginez. Ordurako, GUREAK taldeak 15 urte zeramatzan Gipuzkoan desgaitasunen bat duten pertsonentzako lan aukera egonkorak eta lehiakorak sortzen, eta GUREAK Navarra espiritu eta helburu berarekin sortu zen. Gureak Navarraren kasuan, hasiera batean, desgaitasun fisiko eta sensoriala duten pertsonentzat bereziki.

Ondoren, 1995ean, industria-jardura abiarazi zen, eta Gipuzkoako gainerako lantegietan bezala, muntaia industrialak egiten ziren nagusiki. Orduz geroztik, GUREAK Navarrak bilakatzen jarraitu du, industria, marketin eta zerbitzuetan negozio lehiakorak dituen enpresa bihurtu arte. Gaur egun, bost produkzio-zentro ditu Iruñean eta eskualdean, eta 230 langile ditu bertan, % 93k desgaitasunen bat duela.

Industria sektorean, bere estrategia automobilgintza, smart-home eta mobility sektoreetara bideratutako produktu multiteknologikoetan oinarritzen da eta 155 pertsona enplegatzen ditu. Azken urteetako bilakaerari esker, proiektu berriak egin ahal izan ditu, bai eremu geografiko hurbileko bezeroekin, bai enpresa multinazionalekin. GUREAKen berezko teknologiek (plastikoa, elektronikoa eta kableatuak injektatzea) moduluak eta azpimultzoak eskaintzeari esker, jauzi kualitatibo bat egin da balio erantsi handiagoko produktuarentzat, espezializazio-maila nabarmenarekin, batez ere hainbat aplikazio eta funtzionarako konexio elektrikoko sistemetan.

Marketin arloak 55 langile ditu eta zerbitzu integralak eskaintzen ditu, Marketin Erlazionala eta e-commerce edo BPO proiektuak definitu, diseinatu eta garatuz. Aipatzekoak dira Nafarroako Gobernuarentzat egiten diren lanak (PFEZaren inprimaketa eta gutun-azalaratzea eta mediku-zitazioak, Nafarroako ospitaleentzako eta osasun-zentroentzako garraioa), Iruñerriko Mankomunitatearentzat (fakturen inprimaketa,

gutun-azal eta banaketa), Iruñeko Udalarentzat (jakinarazpenen inprimaketa, gutun-azal eta banaketa) eta Saltoki edo Rural Kutxa bezalako enpresentzat egiten direnak.

Zerbitzuen sektorean 20 langile ditu, eta jarduera nagusia vending makinak kokatzea, mantentzea eta birjartzea da, bai eta Talluntxe eta Arazuri zerbitzuguneak kudeatzea ere.

Plantillaren osaera

Jatorrian, desgaitasun fisiko eta sentsoriala duten pertsonen zuzendutako lan aukerak eskaintzen zituen GUREAK Navarrak. Ondoren, gizartearen beharrei eta jardueren dibertsifikazioari erantzuteko, beste kolektibo batzuei ireki zitzaion. Azken urteotan, buruko gaixotasuna duten pertsonen igoera nabarmena izan da, langileen % 23ra iritsi baita. Gainerako plantilla honela banatzen da: % 46 desgaitasun fisikoa, % 18 sentsoriala eta %13 desgaitasun intelektuala. Javier Gimeno, GUREAK Navarrako zuzendariak azaldu duenez, zailtasun gehien dituzten pertsonengan jartzen dute arreta beti, "GUREAKen laguntza premia handienak dituzten pertsonak lehenesten ditugu, hau da, adimen-degaitasuna edo gaixotasun mentala dutenak, edo % 65etik gorako desgaitasun fisiko eta sentsoriala duten pertsonak. Hala, 2019ko datuekin alderatuta gehien hazi den taldea da, langileen % 36ra izatera iritsi arte", gaineratu du Gimenok.

Itinerary dibisioa; proiektuaren bizkarrezurra

Itinerary dibisioak taldearen egituratzaile papera betetzen du eta zeharka lan egiten du GUREAK Navarraren jarduera guztietan. Hala, bere helburu nagusia da desgaitasuna duten pertsonen garapen pertsonaleko eta profesionaleko prozesuan laguntzea, haien gaitasunak indartzeko eta pertsona bakoitzarentzat egokienak diren aukerak bilatzeko.

Prestakuntzak ere garrantzi handia du erakunde osoan, eta hainbat motatako heziketa-zikloak eskaintzen dira, baina guztiak ere "prestatu eta gero hautatu" GUREAKen filosofiarekin. GUREAK Navarrak urtero praktiketako eta prestakuntza dualeko kontratu bat sinatzen du UPNarekin (Nafarroako Unibertsitate Publikoko Laboratzeko Programa) eta parte-hartzaileen ehuneko handi batek kontratu bat lortzen du enpresaren barruan.

Salestarrekin, Maria Ana Sanz Zentro Integratuarekin, Santa Catalina Laboure Ikastetxearekin eta Ilundain Fundazioarekin praktikak egiteko lankidetzak-hitzarmenak ere indarrean daude.

Guztira, 2018tik, 32 pertsonen egin dituzte praktikak, eta horietatik 12k kontratu bat lortu dute, eta horietatik 7k kontratu mugagabeak. Gainera, gaur egun praktiketan dauden pertsonetatik lauk kontratua izango dute praktikak amaitzean.

Pandemiak markatutako urtea

2020ko ekitaldian, Covid-19k eragindako pandemiak erabat markatuta, GUREAK Navarrak lanpostu guztiak mantendu ditu eta plantillan 70 pertsona batzea lortu du, batez ere laguntza-premia handienak dituzten pertsonak.

Apirilean, egoeraeran zailtasunak zirela eta, langileen ordezkariekin adostu zen halabeharrezko ABEE (aldi baterako enplegu-erregulazioko espediente) bat aktibatzea , eta eragindako pertsonen soldatak % 85era arte osatu ziren.

Ekonomikoki, testuinguruaren ezegonkortasunak, urtea iraunkortasun mailarik lortu gabe ixtea eragin zuen. 2021eko hasiera ere ez da erraza izan merkatuen ezegonkortasunaren ondorioz, batez ere automobilgintzarena, baina urtearen bigarren erdian hobera egitea espero da.

Inbertsioak eta lankidetzak publiko-pribatuak

Historikoki, GUREAKek talde osoaren onurak proiektu eta ekipamenduetan eta egokitzapenetan birinbertitzen ditu, pertsonen autonomia eta garapen profesionala bultzatzen dutenak, batetik, eta GUREAK ereduaren lehiakortasuna eta iraunkortasuna, bestetik. Joan den ekitaldian, GUREAK Navarrak 200.000€ inguru inbertitu zituen instalazioen egokitzapenetan eta modernizazioan, eta 2022an, halaber, instalazioen hobekuntzan garrantzi handiagoko inbertsioa egitea aurreikusten du, langileen segurtasuna eta ongizatea bermatzeko. Arlo horretan, Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren eta, oro har, Nafarroako Administrazio publikoaren lankidetzak eta finantzaketa ezinbestekoa izan da enplegua hedatzeko eta sortzeko.

INFO+:

Olatz Madariaga- 655744945- olatz@horregatik.com